


TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria

2000ko abendua - 33. zenbakia

BAKIOKO XV. NEKAZARITZA AZOKEA

**SAN JOAN
DOLOZAK
2000**



ALKARRIZKETEA

**EUSKEREAREN
JAIA 2000**

**ITXAS-ALDE
Bulgarian**



Ander AGIRRE

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

Neumatikoak

Gas-tutuluak

Orioa aldatzea

Balazta zapatak

Beherapen ederrak

Artza Alde, 8
Tfnoa.: 94 619 48 97
48130 BAKIO

Itsasargi Kafetxea

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 47 86
48130 BAKIO


Txomin taberna

HERRIKO KIROLAREN ALDE

Goitisolo Alde, 34 - Tfnoa.: 94 619 40 70
48130 BAKIO

UR-ZABAL TABERNEA

Urkizaur Alde, 73
Tfnoa.: 94 619 43 05
48130 BAKIO



GOTZON

Jatetxea

Benta Alde, 135
Tfnoak.: 94 619 40 43
94 619 43 30
48130 BAKIO

Maria Jesus BIDASOLO MARLOI'ko JANARIDENDA



Benta Alde, 169 - Tfnoa.: 94 619 30 06
(eskukoa) 606 50 68 26 - 48130 BAKIO



PATXI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Benta Alde, 171
Tel. eta Faxes: 94 619 40 08
(eskukoa) 606 45 09 25 - 48130 BAKIO

Argitaratzailea: Bakioko Euskera Zerbitzua, Bakioko Kultur Etxea, Urkizaurralde 28, 48130 Bakioko, tel: 94 61 94 001 edo 94 61 93 369, faxa: 94 61 93 118. **Erredakzinoa:** Joseba Terreros, Gorane Oleaga, Unai Beitia eta Iniaki Martiartu. **Laguntzaileak:** Anartz Ormaza, Itxaso Urazurrutia, Jonjo Agirre, Garikoitz Etxebarria, Ainara Madariaga, Egoitz Garai, Maria Santisteban, Etor Duoandikoetxea, Iratze Ormaza eta Jon Aingeru Goikoetxea. **Argazkilariak:** Jorge Busturia, Kike Martínez, Aitor Ibarrondo, Itxaso Urazurrutia, Iartz Ordorika eta Iniaki Martiartu. **Koordinazinoa eta hizkuntza ardurea:** Joseba Terreros eta Iniaki Martiartu. **Irarkolea:** Gráficas Gaubeka, Gernika-Lumo. **Ale kopurua:** 700. TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitakoen esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.

T XIRRITXOLA 33

BAKIOKO EUSKAL ALDIZKARIA

Hiruhilabetekaria - 2000ko abendua

ZER-NON

Agurra	3
Berbetan: Ander Agirregaz	4
Eritxia	7
Zer deritxo zu?	8
Zer barri?	9
Argazkitan: Andra Mari eguna	14
Bertsotan: Udako bertso afaria	16
Zuhur ibili!	17
Argazkitan: XV. Nekazaritza Azokea	18
Gure artean: Maria Luisa Larrazabal	20
Zaharrak barri	21
Argazkitan: San Joan Dolozak 2000	22
Gai berezia: Gorbeia	26
Argazkitan: San Migel eguna	28
Baserria: Aldekoa	29
Argazkitan: Euskerearen Jaia 2000	30
Bitxikeriak	32
Barri laburrak	33
Argazkitan: ITXAS-ALDE Bulgarian	34
Euskerea: Bakioko euskerea-11	36
Herriko Taldeen txokoa	38
Kultura leihoa	40
Ezetz jakin!	42
Atzera begira	44


BERBAURREA

PORTUONDO baserria bota egin dabe. Joan egin jaku betiko. Beragaz batera ehundazak urteko erroa eta gomutarria. Hondakinak, bata bestearen ganean, baino ez dira ikusten orain bertan. Laster, aurrerabideari leku eginez, hango lurretan eregi egingo dabe, zeozer eregi edo egin be.

Hondakinotatik, baina, zer edo ha onik nonora eroan ahal izan dabe: harrizko gazunaskea, harri landuren batzuk, ... Baten bat konturatu da-eta herrion euron balioaz. IBARRA be joan egin jakun, aurrerabideari leku egiteko, antza. Apurka-apurka, herriko erroak ostenduz joakuz. Erroak ez eze, eurokaz batera doan gomuta historikoa be galduten hasi gara. Baina etorkizun hobea euki ahal izateko, erroak sendotu beharko litzakez, eurok erauzi edo atara baino. Etorkizuna sentimendua be bada. Aurrerabidea ez da bakarrik teknokraten erispide merkantilisten bidez lortuten. Gauza bien denduan edo bardintzean dago kakoa.

AGURRA
abendua 2000

TXIRRITXOLA



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

TX-33

3



Guztiok dakigun lez, Ander Agirrerren erroak JAUREGIn (*Dxeurin*) ondo sartuta dagoz. Bizitzearen zati handi-handia Bakion emon dau. Bakion mutil eta gizondu zan, batean Bilbon bestean Bakion bizi izan arren be. Bakion egin zan dantzari eta txistulari. Bakiotarra da odolez eta bihotzez. Bakiotar hau, bada, hegazkinetako pilotu izategino heldu da. Gaur egun, munduko zeruak igaroten dabil, hara-honaka. Beraigaine joan gara bada, nontzebarri, berak daukan ogibidea zelazekoa dan jakiteko.

ANDER AGIRREGAZ BERBETAN

BERBETAN
abendua 2000

TX: Zure ogibidea ez dana oso ohikoa gogoan izanda, aitatu zeinke zeintzuk diran pilotu ikasketak bideratzeko lekuak? Eta zein dan pilotu izatea lortzeko jorratu behar izan dozun bidea?

AA: Une honetan estatu mailan badagoz bost edo sei eskola pribatu, ze holango ikasketak egiteko dirua tartean dago beti, nahiko karuak diralako. Nire esperientziari jagokonez, 1988an Iberiak beka moduko programa berezia atara eban, Lufthansagaz

lortutako akordio bateri esker, ikasleak Lufthansak Bremenen daukan eskolara bialtzeko. Ikasketak, bada, egin ahal izan nebazan dirua aurretik ipini barik eta horreek ordaintzeko, gaur egun ondino be, hileru kentzen deuste zati bat nominatik. Ikasketak holantxe ordaintzen dodaz. Halan da ze, lehenengoz Bremenen egon nintzan zortzi hilabetean eta handik Arizonara joan ginan, hegaldiak eta oinarritzko prestakuntzea egiten. Atzera be Alemaniara joan eta bertan entrenamendu aurreratua

ez eze, prestakuntza teoriko guztia be egin genduan. Guztira urte bi egin genduzan eta, egia esan, esperientzia on-ona izan zan.

TX: Eta nondik sortu jatzun zaletasun hori? Txikitatik pilotu izateko amesik euki dozu?

AA: Bai, txikitatik euki dot. Gogoratzen dot, Sondikatik pasatzen nintzan bakotxean, hegazkin bat ikusi eta pentsetan hasten nintzala ea jende hori nora

TX-33

joango zan, zein lekutara. Orduan, perito ikasketetako 2. kurtsoa egiten nabilela, Iberiaren programa horrek urten, nik ikusi eta neure buruari itaundu neutson “zergaitik ez naz joango, ba?” Eta halan, nire burua aurkeztea erabagi eta Madrilera joan nintzan. Han proba piloaa egin behar izan neban: psiko-teknikoak, ingeleseko azterketea, psikologoagaz bakarkako alkarrizketak, medikuen azterketak... Eta halan aukeratu ninduen Alemaniara ikasten joateko. Dana dala, zaletasun hori txikitatik euki dot.

TX: Sarritan aitatzten da pilotuen bizimodua ez dala emoten dauan baizen erreza. Izan be, ordu aldaketak jasan behar izaten dabez, bai eta makina bat hotel, janari eta leku ezbardin be. Zelangoa da pilotu baten bizimodua?

AA: Nik beti esango dot gogorra dala, baina, egia esan, oso gustura nabil. Badagoz, beste ogibide batzuetan lez, alderdi negatiboak, esaterako orduen aldaketak, gauzez eta astegoienetan behar egin behar izatea... baina beste alderdi batetik, leku ezbardinak eta jende barria ezagutzeko aukerea eukiten dogu, hau da, beste pertsona batzuk oporretan egiten dabezan hainbat gauza, ba, nik beharrean egiten dodaz.

TX: Baina zein puntutagino daukazue leku barri horreek ezagutzeko aukerarik? Izan be, hegaldien ostean, egonaldiak nahiko laburrak izaten dira, ezta?

AA: Esate baterako, nik azken aldion Iparramerika eta Hegoamerikara egiten dodazan hegaldien barruan, normalean, beti euki dot, gitxienez, pare bat egun uriburuak eta inguruak ezagutzeko. Horrek, jakina, ez dau

bidaiia luzerik egiteko aukerarik emoten, baina ez dago txarto be.

TX: Oker ez banago, orain dala urtebete edo urte t’erdi Iberia eta pilotuen arteko matrakea sortu zan arrazoi ekonomikoak zirala eta. Gaur egun pilotuek dauken soldatea kontuan hartuta, ez zaree pribilegiatuak sentitzen?

AA: Ni oso pozik nago beharragaz eta kobratzen dodanagaz, baina kontuan hartu behar da, guk daukagun ardurea eta erantzukizuna handia dirana, norberaren bizia tartean dagoalako. Ganera, gure beharrean huts bat bakarrik egin ezker, gure bizia ez eze, atzean datozen berrehun lagunena be iminten dogu arriskuan, bai eta hegazkina bera be. Esaterako, nik orain gidatzen dodan hegazkinak 15.000 milioi pezeta balio dau. Erantzukizuna, bada, handia da. Dana dala, ondo kobratzen doguna onartu behar dot, hau da, gure ardurearen neurrian.

TX: Hori egia izanda be, ez dagoz, gaur egunean, sistema guztiak guztiz automatizatuta? Lurrartzea bera be ez da automatikokiro egiten?

AA: Ba, oraingo hegaldi luzeetan gitxiago, hilabetean bi edo hiru egiten doguz. Dana dala, ikuste edo aro txarra dagoanean, automatismo guztiak erabilten doguz, eta, egia esan, maniobrak zoragarri egiten dabez. Gaur egun, tresna automatikoak guztiz fidagarriak dira.

TX: Zelango prestakuntzea behar da hegazkina gidatu ahal izateko?

AA: Nire eritxiz, gatxena hasikeran egiten dan oinarrizko entrenamendua da, ze, airean doan hegazkin txikia gidatzeko be, makina bat tresna kontrolatu

eta prozedura guztiak ezagutu behar dira. Ganera, orientazio espaziala beharrezko-beharrezkoa da. Edozelan be, behin ezagutu beharreko tresna guztiak ezagututa, askoz errezagoa izaten da etenbako prestakuntzeari jagokozan ikastarotxuei normaltasunez oratzea. Holangoetan, dana dala, larrialdiei aurre egiteko ariketak goititu behar izaten doguz (esate baterako, simulagailuan motorrak erre edo lurrartzeko tresnea ez dabilenean) eta, halan da ze, dan-dana arrakastatsu goititzea ez da bape erreza izaten.

TX: Ikusi dozu inoz zeure burua estualdiren baten?

AA: Ba, larrialdi gogorren baten sekula be ez. Arazo tekniko txikerrak euki dodaz, eta horretan bildurgarrienak ekatxa handiak izaten dira. Une honetan, esaterako, Ameriketara joateko, Karibea igaro behar eta bertan itzelezko ekatxak izaten dira, inetasia, justuriak... sekulako ekatxak. Holangoetan, hegazkina mobidu egiten dan lez, jendearentzat oso bildurgarria izaten da. Guk, behintzat, ez dogu hain txarto pasetan, badakigulako zer dagoan eta hegazkinak zelango indarrari eutsi leion. Ganera, dana



ilunpean lotzen da eta tentsinoa igarri egiten da.

TX: Zabaldu behar izan deusezu inoz bidazteiei nasaitzeko mezurik? Zelan egiten dozu hori?

AA: Ez dago misterio handirik. Jendeari nasaitasunez berba egin behar jako eta egia esan. Ekatxa badago, ekatxa dagoala esan eta kito. Hori bai, patxadeari eutsi behar jako berba egingeran.

TX: Gaur egun, konpainien arteko lehia oso handia da. Horreri esker gero eta hegaldi

Batasuna desegin zanetik, berbarako, hango konpainietan ezbehar kopurua handitu da. Hori bai, prezioek jasten jarraitzen badabe, beharbada, egunen baten segurtasun mailea ez da hainbeste jagongo.

TX: Lorretabide hau erabilten dauan jende kopurua kontuan hartuta, hegazkinez bidaiatzea "demokratizatu" egin dala esan leiteke?

AA: Horretan ez dago zalantzarik. Ganera, edozein herrialderen ekonomia garatzeko

mendik urte batzuetara, arazo asko hegazkina hartu ahal izateko?

AA: Gero eta gehiago. Izan be, hegaldien kopurua gorantza doa, urtean %4 inguru haziz. Edozelan be, beharrezko konponbideak topatuko diralakoa daukat, esaterako, aireportu handiagoak eta konpainia gehiago egotea. Halan da ze, ez dot uste hori arazo larri bihurtuko danik.

TX: Lehenago aitatu dozu pilotu izatearen alde ona leku barriak ezagutzea dala. Orain arte ikusi dozuzan herrietarik zein izan da gehien erakarri zaituana?


AA: Orain dala urte bi Costa Rican egon nintzan eta hango jendeak zurtz eginda itzi ninduan, guztiz begiko eta abegikorrak izan ziralako. Hori Hegoamerika osoan jazoten da, baina herrialde horretan batez be igarri neban hori. Beti egoten ziran norberari lagundu edo norberagaz ibilteko prest. Herrialde zoragarria da. Ganera, Ertamerikako toki matrakatsuan, Nikaragua eta Guatemalaren ondoan, egonda be, ez dauke gudarosterik, baketsua da... Niri leku ikusgarria eta zoragarria egin jatan.

TX: Azkenik, eta itaun informal batera pasatuz, pilotua nora joaten da oporretan?

AA: Askotan egin deuste itaun hori eta beti erantzun bera emoten deutset: Bakiora. Udan oporrik euki ezkerro, hona etorten naz eta, osterantzean, Bilbon lotzen naz. Ze mendira joatea gustetan jat, mendi bizikleteagaz ibiltea eta holan.

TX: Eskerrik asko, Ander. Eta hurrengora arte.

Joseba TERREROS



merkeagoak daukaguz, baina segurtasuna ez da lehen baizen kontuan hartzen. Bermatuta dago hegazkinen segurtasuna?

AA: Nik ezagutzen dodan konpainia Iberia da, eta guk dakigula, oraingoz, segurtasunari ez jako zatirik kendu. Dana dala, Sobiet

guztiz beharrezkoa da jendea eta merkantziak mugitzea. Oso onuragarritzat hartu beharra dago pertsona guztiek hegazkina hartzeko ahalmena eukitea.

TX: Halan bada, gaur egun aireportuak masifikatuta badagoz, eukiko doguz, he-



ASTOKERIA BAKION

Dagonilaren 14an, gaueko 10.30etan. Hiru, lau, bost, ... lagunek, burua estalduta eukela, txoferrari orroaka eta zemaika urten eragin ostean, BIZKAIBUS zerbitzuko autobusari su emon eutsoen Bakioko Bentako aparkalekuan. Autobusa eta beraren ingurua be guttiz kiskilduta lotu ziran. Handixik hur ebilzan oinezkoek, barriz, bildur eta ikaraz beteta, ospa egin behar izan eben inguruetatik, badaezpadan be.

Emon be, urte asko ta asko ahaleginetan emon dabe Bakioko herritarrek autobus zerbitzu hobea eta duina jaresteko. Herritarrek eurok sendoro eskatu ez eze, herriko hiru alderdi politikoen hauteskunde programetan lehenengotasunezko helburutzat be hartua izan da asmo hori behin eta barriz. Zerbitzu hobea geunkalakoan gangozan, bada!

Hurrengo egunean, herriko askoren hasarrakuntzea "betikoakana" bideratu zan. Hau da, ezker abertzalekoakana. Nik, ostera, autobus zerbitzu hobearen alde eurok hainbeste izerdi emon eta gero, edonori jokatu neuskio herriko Ezker Abertzaleak zitalkeria horretan ezelango zerikusirik ez daukana. Horreri berberorreri

jokatuko neuskio be, herriko Ezker Abertzaleak astokeria handi horrerri, zalantza barik, gatxeritxiko deutsona. Egon be, ziur be ziur nago, buru-estaldu horreek erbestetik etorri zirana, mertzenarioen ekintza burubako eta lotsagarri hori aurrera eroateko asmotan. Zer lortu dabe autobusa erre eta? Bada, Herriak eta, batez be, herriko Ezker Abertzaleak urte askotan egindako ahalegin handiari **popatik emotea!** Besterik ez. Ganorabako ustel halangook!

Iniaki MARTIARTU

OHARRA:

Lehengo TXIRRITXOLAn aitatu barik itzi genduana, oraingoan arteztuten gatortzuez hemengo ohar honetan. Hau da, 32. orrialdeko argazkirik gehienak, 26. orrialdekoak, zein 32. eta 33. orrialdeetakoak lartz Ordorikak atarata dagoz. Bego, bada, artez artez egon behar ebana.

OHARRA:

Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehienez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz.

Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo leiteken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izen edo irudiari kalte egin leikionik be.

TXIRRITXOLAREN IRAGARKIEN SALNEURRIAK

Hona hemen TXIRRITXOLAn iragarkiren bat imini gura dozuentzako salneurri barriak. Salneurriok 2000ko urtarriletik aurrera dagoz indarrean. Inork iragarkiren bat erosi gura izan ezkeron, deitu bei arrastietan Kultur Etxeko telefono zenbaki honetara: 94.6193369.

Orrialde (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale1
8rena (125 x 85)	10.000	7.500	5.000
16rena (87 x 66)	7.500	5.000	3.750
32rena (66 x 40)	5.000	3.750	2.500

Eskerrik asko etorteagaitik!



KAFETEGIA

Benta Alde, 75
Bekabarri
Tfnoa.: 94 619 40 59

**Sabin'en
Jatetxea**

Benta Alde, 72
Estibaliz
Tfnoa.: 94 619 40 41

48130 BAKIO

ERITXIA
abendua 2000

TX-33

7

Gure herrian aurkeztu barri deuskuen Merkataritza eta Turismoa bultzatuteko planak, gauza askoren artean, berau be badinosku: “daukagun bide nagusiaz ganera, beste bideren bat egin behar dala herrian zehar”. Bide horrek etorkizunean azaldu leitekezan trafiko arazoak konponduten lagunduko ei leuskigu. Merkatarien eritxia jakiteko euretariko batzuekainean joan gara eta hurrengo itaun hau egin deutsegu:

Uste dozu zuk be beste bide nagusi bat herri honetan beharrezkoa dala?



Arantza GARAI

Hain beharrezkoa ez dot uste danik. Denpora gitxirako beharko litzake-eta, hilabete birako baino ez. Ganerako hileetan ez litzake beharrezkoa izango. Badagoz gauza asko hori baino beharrezkoagoak diranak.



Agurtzane IMATZ

Hile bigaitik egin behar da holango obra handia? Zer lortuko da herrian, bide ta biderik baino ez? Ez dot pentsetan nik hori beharrezkoa danik. Dagoanagaz nahiko daukaguna ikusten dot.



Iñaki URIARTE

Orain daukagunagaz ondo konponduten gara. Baina, gerora aditu behar da. Urte batzuk barru beharrezkoa izan leiteke. Beste alderdi batetik, hori egiteak gastu handia ekarriko leuke.



Margari ARRILLAGA

Bai, beharrezkoa da. Ezbeharren bat balego bide erdian eta horregaitik bera moztuta lotuko balitz, aurrera ibilteko beste aukera bat beharko litzake.



Joan Karlos URIARTE

Lagungarri izan leiteke, batez be udan egoten dan trafiko handiagaitik. Trafiko hori, herri barrutik joan beharrean, albo batetik be joateak asko lagunduko leuke. Hori argi ikusten da jaietan edota edozein ekintza eratu eta bidea itxiten danean.



Patxi RENTERIA

Bide barria egin ezkerro, beti izango da hobakuntzea. Gero eta gauza gehiago egiten badira, eta eurok ondo egin, ganera, ondo ikusten dot egitea. Hobakuntzak danak dira onak.

Etxeetan gas propanoa ipinteko aukerea



Ikusiko zenduen lez, da-borduko gas propanoaren sarea ipinteko beharrei oratu jake. Halan da ze, hemendik gitxira bakiotarrok aukera ezin hobea eukiko dogu gasak emoten dauan berotasunaz gozatzeko. Halan, konexinoaren prezioa, guztira, 180.000 pezetakoa da eta hamabi kuotatan ordaindu ahal izango da, hilero 15.000 pezetako zenbatekoa sartuz.



Erreka Nagusia zabaltzeko beharrak martxan

Urriaren azken astean ekin jaken Erreka Nagusiko ubidea zabaltzeko beharrei. Igarriko zenduen lez, helburua uriolak izateko arriskua gitxitzea da. Halan, errekearen ubidea Ibaiondoko zubitik Zubibaltzagino zabalduko da metro t'erdi inguru. Beharrek urtebete irautea aurreikusita dago, baina beharrok sano arazotsu diran ezker, izan leiteke epe hori luzatu behar izatea.



Iparralde-Hegoalde Surf Biltzarra Bakion

Irailaren 23 eta 24an Iparralde-Hegoalde II. Surf Biltzarra egin zan gure haretzan. Hemendik aurrera, urtero-urtero eratuko da ekitaldi hori. Aurtengo honetan, mugaz alde bietako surflaririk onenak batu ziran. Guztira 88 kirolarik hartu eben esku (Iparraldeko 44 eta Hegoaldeko beste horrenbeste) eta era horretara Euskal Herriko txapeldunak aukeratu ebezan kategoriaz guztietan.

Txapeldunak, bada, ondokoak izan ziran: Surf Open kategorian Kepa Acero, andrazkoenean Miriam Imatz, 16 urterik beherako Surf Open-ean Thomas Portet, Body Open-ean Lander Irazabalbeiti, Longboard-ean Lucas Levezac eta 18 urterik beherako Body Open-ean be Lander Irazabalbeiti.

Guztiagaz be, ekitaldiaren erakuntzeagaz arduratu dan BST-ak esan deusku Euskal Herriko Surf Biltzarra ez dala surf lehiaketa hutsa izan eta azken helburua Euskal Herriko surflarien arteko hartuemonak sendotzea izaten dala.

Ganera, Bakion egindako bigarren ekitaldi honetan Euskal Herriko Surf Federazioari omenaldi txikitxua egin jakon eta, bide batez, euskal surf selekzinoak nazinoarteko txapelketetan esku hartzeko eskubidea aldarrikatu zan itsas ibiltokian zehar egindako kalerik kalekoaren bitartez.

ZER BARRI?
abendua 2000

TX-33

BIZKAIBUS BAT GITXIAGO



Dagonilaren 14an, gaueko 10.30ak inguru, hiru-lau lagunek, burua estalduta eta txoferrari autobusetik urten eragin ta gero, BIZKAIBUS zerbitzuko autobusari su emon eutsoen Bentako aparkalekuan. Autobusa eta haren ingurua be guztiz kiskilduta lotu ziran. Handik hur ebilzan oinezkoengan bildur eta ikarea ziran agiri-agirian.

EUSKAL PRESOEN ALDE



Jaien hasikeran, dagonilaren 28an, arratsaldeko zazpiretan, Bentako enparantzan egitekoa zan Euskal espetxeratuak Euskal Herrira ekartearen aldeko kale-batzera joateko dei egin eutseen herritarrei udaleko indar

MENDEBALDEKO EUSKEREAREN EKARRIA

Zemendiaren 6an hasita, Mendebalde alkartearen eskutik gure euskerea eta beraren ezaugarriak hobeto ezagutzeko ikastaroa martxan dago. Ikastaroaren helburua herriko berbakerearen ganeko garrantzia azpimarratzean datza. Izan be, euskera batuak hainbat arlo formal eskuratu ebanetik hona, etxeko euskerea behar baino askoz gehiago baztertu dogu eta, ganera, ez dogu bien arteko osogarritasuna topetan jakin. Halan da ze, abenduaren 20an amaituko dan ikastaro honen bitartez gure berbakerearen ezaugarriak hobeto ezagutu eta horreei onura handiagoa atarateko oinarriak sendotu gura izan doguz, hainbat arlotako profesionalak, batez be irakaskuntzakoek, euren behar eremuan erabili daiezan.

politiko guztiek. Euskal Herrian bizi dogun arazo politikoa konpontzeko aurrerapausoa izango litzakela jakin eragin eben. **Euskal presoek eskubideak bete!**

MERKATARITZA ETA TURISMOA SUSTATUTEKO PLANA

Urriaren 10ean udaletxeko batzar aretoan herriko merkatariei aurkeztu jaken merkataritza eta turismoa bizkortzeko plana. Egitasmo honen helbururik nagusia merkataritza eta turismorako baldintza egokiak sortzean datza, beti be arlo bi horreen garapena oztopatzen dauan urtarokotasuna goitituz. Izan be, Bakiok urte osoan gune turistiko garrantzitsu bihurtzeko behar beste indar eta baliabide euki badaukaz.



PORTUONDO

Apurka-apurka bajoakuz joan herriko etxerik esan-guratsuenak galduten. Horetarikoz azkena **PORTUONDO** izan da. Ezin aitatu barik itzi lei etxe horrek haretza inguruan euki izan dauan leba handia. Etxe horrek lorratz sakona itzi dau herri honetako historian. Ha galdukeran, jaubeek ez eze, herritar guztiek be galdu dogu gure izakerearen, Herri izakerearen, zatitxu bat. **PORTUONDO** hil da, gora **PORTUONDO!**

URRIAREN LEHENENGO ASTEAN EKIN JAKON MAHATSA BATZEARI

Gure txakolin egileek urriaren lehenengo asteetan amaitu eben mahatsa batzeko beharra. Halan, eurek aitaturakoa kontuan hartuta, aurtengo uztea ez da igazkoa besteko ona izango, baina ezin lei ezelan be txartzat hartu. Orduan bada, 2001.ean be txakolin ezin gozoagoa txastatzeko aukerea eukiko dogu.



NEKAZARITZAKO IKASTAROAK AURRERA

Nekazal Dibertzifikazioa
Barazki-kontserba eta kontserba gozoen lanketa.
Diversificación Agraria
Elaboración de conservas, dulces y vegetales.


Bakioko Udaletxea
Ayuntamiento de Bakio
Bakio (Bizkaia)

azaroaren 13tik 17ra
del 13 al 17 de noviembre

16:00 - 19:00

MENDIKOI
LAKION

Zemendiaren 13tik 17ra bitartean barazki kontserbaren inguruko ikastaroa egin da Bakion. Eskuhartzaileen kopurua handia izan da, 31 bakiotar animatu dira-eta ikastaro honetan esku hartzen. Jorratutako gaiak ondokoak izan dira: kontserbak eta mermeladak egiten ikasteko teknikak eta praktikak, lantoki txiki bat sortzeko egin beharreko pausoak eta Lenitz-Gatzagako enpresa batera egindako bisitea. Irakasle guztiak enpresa pribatuetakoa behargin jakitunak izan dira eta ikastaroan esku hartu dabenen esanetan, barrero egiteko esperientzia izan leiteke honako hau.



LEHENENGOZ URTE BIKO UMEENTZAKO GELEA ESKOLAN

Eskolako arduradunen eta udalaren arteko ekimenari esker, aurton eskolan lehenengoz ipini da martxan urte biko umeei zuzendutako gelea. Zerbitzu hau urte gitxirik hona zabaldu da inguruko eskoletan eta, beraren beharizana susmatuta, Bakion eskaintzea pentsatu da. Izan be, gaur eguneko guraso gazteei guztiz beharrezkoa jake umeak lehenago eskolaratzea, gaurko gizarteak ezarten dauan erritmoari jarraitu ahal izateko, hatan be.



ZER BARRI?
abendua 2000

TX-33

11

TURISMOAREN GANEKO AZKEN BARRIAK

Egia esateko, aurtengo udako estatistikak **igazkoak baino apalagoak** izan dira. Bagilaren 1etik irailaren 30era bitartean, 1999ko udan 6.880 lagun etorri ziran gurera. 2000ko udan, ostera, 4.250 lagun baino ez.

Zergaitik jatsi da hainbeste aurtengo bisitarien kopurua? Bada, eragilerik nagusia **E.T.A.-k su-etena** amaitu izana izan dala esan geinke. Egoera barri horrek bildurra eta zalantzak sortu dauz kanpotarren artean. Askotan deitu izan deuskue herriko ostatuetatik esateko: bisitariak erreserba egin eta gero, ez dirala agertu, edota ez dirala etorriko esan be ez. Normalean, holango jendea beti egoten da, baina aurtengo egoera politikoak-edo halango gauzak ekarri deuskuz, aurki.

Dana dala, ez pentsatu estatistikek hain emoitza txarrak erakutsi dabenik, ze **1998ko udan 3.538 lagun bisitari euki genduzan**, halan da ze, orain dala urte bi baino jende gehiago izan dogu aurten herrian.

Turistak nondik etorri diran kontuan hartuten badogu, esan behar dogu, **Espainiako estatutik** gehienak izan dirala, batez be **katalanak eta madrildarrak**. Bestetik, gero eta andaluziar gehiago datoz gure herria ezagututen. Estatutik kanpoko atzerritarren artean, arteragoko urteetan lez, **frantsesak, ingelesak, alemaniarrak**, italiarrak, belgikarrak eta holandarrak igaro dira gure bulegotik.

Gogokoen izan dabezanak: gure herriko **ikuspegia**, bertoko **aro epela**, gure herriko **jaiak** eta **gastronomia**.

Horrezaz ganera, Turismo Bulegoko beharginek udagoieneko ekintzak honetara eratu doguz :

- Urrian, **Bartzelona** eta **Zaragozako** Turismo **Azoketan** ibili gintzazan gure herriaren barria lau haizetara zabalduen.
- Zemendian, **Valladolidera** joan-etorria.
- Abenduan, Andra Mari Sortzez Garbiaren zubi luzerako **eski urteker**a bat eratutekotan gabilz.

Herritarrentzako be badaukaguz gauza interesgarriak Turismo bulegoan:

- **Surf taulak** zein **BST materiala** alogerean euki eta saldu egiten doguz.
- **Fotokopiak** egiteko aukerea eta **fax zerbitzua** daukaguz.
- **Espainiako argibide turistiko**a badaukagu zuen oporraldirako.
- **Bakioko opariak** erosi leitekez (txakolina, gomutakiak,...).
- Gazteentzako **ikasgelak** dagoz.

Gure ordutegia hauxe dozue:

Astelehenetik zapatara: **9.30-13.30 / 16.30-19.30**
Domeka eta jaiegunetan: **11.00-13.30**

TURISMO BULEGOKO BEHARGINAK

ZER EGIN BEHAR DOGU TXAKURRAGAZ?



Lege barriak dirala-eta, Bakioko Udalak hurrengok ekarri deuskuz gogora:

- 1.- Txakurra ugal barik eroatea edota legeak dinona ez betetea, legez kanpokotzat hartu eta zigortu egingo da.
- 2.- Txakur korotzak batu ahal izateko, beti paper zati bat eroan beharko dau aldean jaubeak.

Eta ganera:

A- IDENTIFIKAZINOA

- 1.- Txipa imini.
- 2.- Erroldan sartu.
- 3.- Osasun txantela.

B.- ZELAN EUKI BEHAR DOGUZ?

- 1.- Ondo janarituta.
- 2.- Urtean behin osasun azterketea egin.
- 3.- Erantzukizun zibileko aseguruua egin.
- 4.- Toki publikoetan ugalaz eutsi.

D.- IZTEA EDO SALTZEA

- 1.- Itzi edo saldu ezker, udala jakitun imini.
- 2.- Beharrezkoak bete (ikus A).

E.- TXAKUR ARRISKUTSUAK

- 1.- Kontuz ibili.
- 2.- Txakur tokitik inez ez egiteko neurriak hartu.
- 3.- Ugal luzagarriak galazota dagoz.
- 4.- Toki publikoetan txakurra beti musturrekoa jantzita euki.
- 5.- Txakurra beti identifikazino plakea jantzita euki.

BAKIOKO IPUIN LEHIAKETEAK

OINARRIAK:

- **Gaia:** Ipuinak Bakion kokatuta egon behar dau.
- **Edonork hartu leike esku.**
- **15 urterik gora,** lanak idazkinez idatzita aurkeztuko dira.
- **Euskeraz** aurkeztuko dira lanak, batuaz zein bizkaieraz.
- Idazlanaren **luzerea** gehienez sei orrialdekoa eta gitxienez orri bikoia izango da.
- **Aurkeztuteko epea:** Azken eguna, **abenduaren 11a** izango da. Idazlana gutunazal handi baten barruan sartu behar da, eta idazlearen zehaztasunak beste gutunazal txikiago baten.
- Euskera Batzordearen eskuetan lotuko dira zuzen-

VIII. ARGAZKI LEHIAKETEAK



Aurtengo argazki lehiaketan irabazleak izan diranak hurrengo saridun honeek dira:

- Lehenegoa, **Juan Manuel Txarroalde**, "Ikuspegi I" izeneko argazkiagaz.
- Bigarrena, **Maritxu Garrido**, "Argia II" lanagaitik.
- Hirugarrena, **Gloria Larrea**, "Peña Roja. Bajamar I" argazkiagaitik.

HURRENGO ERAKUSKETAK



- Urriaren 9tik 26ra arte, **ZAZO ELKARTEA**ren lan batzuk euki doguz, euretariko gehienak umeek egindakoak.
- Zemendiaren 13tik 29ra arte, **EDUARDO LOPEZ**en irudiak ikusi ahal izan doguz.
- Abenduaren 1etik 15era arte, **ERRAMUN LANDA**ren irudiak.

ketearen ardurea, azken erabagia, sariak banatzea eta argitaratzearen eskubidea.

- Lanak Bakioko **Kultur Etxean** hartuko dira, arratsaldeko ordutegiaren barruan.

ADIN TALDEAK:

- I. 7 urterik 10 urtera
- II. 11 urterik 14 urtera
- III. 15 urterik 18 urtera
- IV. 19 urterik aurrera

Sariak: Gabon gauan, goiko pelotalekuan.

Bakioko Euskera Batzordea



KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

Joan dan urriaren 5ean Kultur Etxeko ikastaroak hasi ziran. Aurtun be, Aerobica, Gimnasia, Marrazkigintza, Esku Lanak eta Yogako taldeak osatu egin dira.

Saloi Dantzetako ikastaroa atzeratu behar izan dogu behar dan besteko lagun kopurua bete arte. Hau dala eta, saloi dantzetan hasteko animatuta zagozenok izena emon zeinkee Kultur Etxean.

Aurkeztu dogun ikastaro barria Argazkigintzakoa izan da. Kurtso hau, astelehenetan izango da, arratsaldeko 7:00etatik 9:00etara. Eta bertan oinarriko edukiak landuko dira, ikasleek argazki makinea ahalik eta ondoen erabili daien.

Datorren urteari begira, Etxeko Konponketak izeneko ikastaroa prestetan gabilz. Ikastaro honetan ikusiko diran gaiak honeexek izango dira:

- Elektrizitatea (esate baterako, entxufe barria zelan imini, konexinoa zelan egin, lanparea zelan aldatu ...)
- Igeltsaritza (baldosak, zementua, kolea ...)
- Iturgintza (txorroten arazoak, garbigailua ...)
- Arotzeria (ateak, krisketak, apalak ...)
- Pintoretza (pintura motak, teknikak ...)
- Bernizatza (egurra, motak, tindatza ...)

Eduki guztiak oinarrikoak izango dirala esan beharra dago, edonork etxean aurrera eramateko moduko konponketak landuko dirala. Ikastaro honetarako izena emateko epea abenduan hasiko da.

ZER BARRI?
abendua 2000





TX-33

Argazkitan



Andra Mari eguneko izarra **ITXAS-ALDE** dantza taldea izan da aspaldion. Goizean, eleiza aurreko dantzaldia herriko dantzaririk gazteenek egiten badabe be, ilundiko dantzaldian ia talde osoak hartuten dau esku. Urterik urtera dantzaldi hori ikusgarriagoa izan da. Esan behar da, herria sano pozik dagoala gure herriko gazteek egiten daben ahaleginagaz. Jarraitu beie horretan urte askotan!






ARGAZKITAN
abendua 2000

UDAN BE BERTSOTAN

Pasa dan udako dagonilaren 3an euki genduan, barriro be, ohitura egin jakun udako bertso afaria. Oraingo honetan, "Bolibar" jatetxean. Hantxe egon ginan hirurogeitaka pertsona, Felixek prestatu euskun afari ederra jan ostein, bertso eta txiste piloa entzuten. Oraingoan, Maialen Lujanbio, Mañukorta xelebrea eta hainbeste bider Bakiora kantetan etorri jakun Jon Maia izan ziran protagonistak. Betiko lez, saio kuriosoak urten eban han eta, ganera, Mañukortak be txiste eta pasadizu xelebreakaz alaitu euskun gaua. Horra hor, bada, hasikerako bertso bana.

Unai BEITIA



Inguru hontan batzuk "La Bomba" nahiz hartu duten eredu, Bakion oso desberdina da uda garai eta negu. Mikrofonorik ez daukagu ta gainera zutik gaude gu. Gure kristauak bedeinkatuaz apaizak ematen dugu.

Maialen Lujanbio

Gaur Bakiora ez gera etorri gure bnuruen kaltian. Gazte alaiak ikusten ditut jangela bete-betian. Bertso ta txiste ta irriparra kontu batzuek tartian, umore puxkat merezi luke holako lagunartian.

Mañukorta

Umore hori sortuko degu, ez da izango kaltera. Horregatik jarri gaituzte zutik hirurak batera. Zuen herria udan pasa da hustutzetik betetzera, gaurko afarian gure gorputzari gertatu zaion antzera.

Jon Maia



BADAKIZU ARGAZKIETAKOOK ZEIN BASERRITAKOAK DIRAN?



Erantzuna badakizu, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXEra. Epea zezeilaren 16an amaituko jatzu. Itzi zeure izena eta telefono zenbakia. Erantzuna igarriko dabenen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:



Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan



Arteragokoaren erantzun zuzena:

“**Etxe Pinto**”

Irabazlea: **Oihane Mardaras**

Amen dozuez, bada, **Oihane Mardaras** eta beraren laguna **TXOBERNE** tabernan afaria mauka-mauka jaten.

TXOBERNE

Berton-bertokoa gozatuteko
leku aproposa
Bakioko txakolina, sagardoa
eta jateko giro ezin hobekoan

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81

ZUHUR IBILI
abendua 2000


TX-33


17

XV. Nekazaritza Azokea



Hamabost urte joan dira Nekazaritza Azokea gure herrian egiten hasi zanetik. Urtero-urtero, baten be hutsik egin barik, eratuten izan da azokea. Urterik urtera geroago eta onarpen handiagoa irabazten joan da, bai herritarren artean, bai erbestetarren artean be. Urterik urtera erakusle-saltzaileen eskuhartzea ez da pitin bape txikitu, handiago egin ez bada, behintzat, eutsi egin deutso lortutakoari. Gure luraren emoitzarik eder eta gozoenak ikusi eta erosi ahal izan genduzan joan zan dagonilaren 27an, barbarako: ortuariak, igaliak, lorak, eztiak, gaztaia, ogia, gozopilak,... eta danon errege, txakolina bera, jakina! Jendea be, baztarrak etorri ziran, ikusten ez eze, erosten be. Portuondoko makaldian, egun hatan, batek baino gehiagok ekarritako guzti-guztia saldu eban sasoia baino arinago. Dagoan lekua dagoala, erakusle-saltzaile batzuei ez etorteko esan behar izan jaken. Egun horretarako beren-beregi eratuta egoan txakolin lehiaketan, zurian, lehenengo saria Zamudioko Oletxerentzako izan zan, gorrian, ostera, Lezamako Agirrerentzako izan zan saria eta baltzean, Bakioko Zabalarentzako. Zorion beroa **SUSTRAIBILA** taldekoei. Izan be, eurak izan dira-eta urteotan horren guztiorren eratazaleak.





Berbalapikoa

erbestetar= beste herri batekoa.

eskuhartze= partehartze.

emoitza= produktu.

igali= fruta.

gozopil= pastel.

makaldi= Portuondoko zugatzak.

beren-beregi= berariaz.



Maria Luisa Larrazabal

Gizaldi honen hasikeran, Bakioko sartukeran, Goikolan, indarrola bat egoan "IRURAK BAT" izenekoa. Harek Bakiok, Mungia, Bermeo, Jatabe eta inguru guztira argindarra bialduten eban.

Hango arduraduna, Felix Larrazabal, Gaminizko (Plentzia) semea, musikari jatorra, zortzi seme-alaben aita, bost neska lirain eta hiru seme lerdenen aita, hatan be. Hiru mutilak tantai lakoak ziran eta bost neskak politak, krabelinak baino politagoak, gorputz liran eta begi ederrekoak. Hareetariko zaharrena, gure Maria Luisa, gaur egun Basigoko etxeoandrea dogu, lehengo alkate zahararen alarguna, 98 urtekoa eta Bakioko pertsonarik zaharrena be.

Maria Luisa Gaminizen (Plentzia) jaiok zira eta bederatzi urtegez-edo, beraren aitaren beharlekua zala-eta, Bakiora etorri behar izan eban biziten. Hogei urte eukazala, Maximo Zabala Basigoko etxagunagaz ezkondu zan, berau sasoi hatan Bakioko alkate jauna zala.

TX: Zuk, bai, zuk Maria Luisa Bakion oso osoan bete zenduan antxinako esakunea: "etorri, ikusi eta irabazi".

MLL: Zergaitik dinozu hori?

TX: Bada, Plentziatik Bakiora etorri eta Basigoko etxaguna eta herriko alkatea zana, barriz, harrapatutea lortu zendualako.

MLL: Nork urten ete eban irabazten? Neuk be neure harrokeritxuak esan behar deusudaz, bada. Neu be intxaur bakoa ez nintzan izango...

TX: Egin ete eban zure gizonak, alkate zala, gerokoek gogoan hartutekorik?

MLL: Nik dakidala, gauza bi bai behintzat. Lehenengoa, garrantzi-tsua, behintzat: herria bat egitea. Zubiaur eta San Pelaio, Bermeokoak izanda, Bakiora ekarri ebazan, herria handiagotuz. Hona hemen orduko Errege Legeak dinona:

"Ontzat hartuten dot, orain arte Bermeoko udalerrarenak izan diran Zubiaur eta San Pelaioko lurraldeak Bakioko udalerrari gehitutea." Alfonso XIII. Erregearen Legea. Madrilen, 1927ko urriaren 4an.

Eta bigarrena, urak herrira ekartea.

TX: Basigok badauka entzute handia hango txakolina dala-eta. Noztik egiten da txakolina Basigon?

MML: Ni kanpotik etorritakoa nazanez, nik ez dakit hori ondo. Baina gure Mariok, semerik zaharrenak, sarritan esaten dau, behin baten, berak aititari hauxe



entzun eutsola: "Nik beti ezagutu dodaz mahatsondo zaharrak Basigon".

TX: Lortu ete dozue inoz txakolin saririk-eta?

MLL: Zagoz isilik. Ganbaran be ez daukagu lekuri eurontzat eta. Irabazikeran hartuten dau poza norberak, baina, gero hareei begira egoteko astirik be ez daukagu.

TX: Izan dozue aldakuntzarik txakolingintzan?

MLL: Txakolingintzan bertan ez handirik. Bai, baina, mahatsak jagonkeran eta zerbitukeran. Antxina bokoieta, upeletan. Gaur egun, botiletan. Lehen baino txakolin gehiago egiten dogu orain,

hobe eta, ganera, hobeto saldu.

TX: Eskerrik asko, Maria Luisa, eta beste batera arte.

Han lotu jaku, barretsu, gure Maria Luisa, Bakioko amama,

Basigoko ateburuko parrapean, mahats-mardoei begira, noz txakolin barria eurotatik egingo.

**Jon Aingeru
GOIKOETXEA**

Berbalapikoa

gizaldi= mende, ehun urteko.

indarrola= zentral elektriko.

argindar= elektrizitate.

Gaminiz= Plentzia. (euskal izen zaharra)

lirain= itxura oneko, dotore. (andrak)

lerden= itxura oneko, dotore. (gizonak)

hatan be= hain zuzen be.

tantai= handitzar, kankailu.

etxagun= etxeoko jaun.

intxaur bakoa ez izan= ondasunen bat euki.

gogoan hartu= kontuan hartu, gogoratu.

udalerrri= udalaren lurraldea.

entzute= ospe, fama.

mahatsondo= zepa.

bokoi= upel handia (600 litrokoa).

upel= barrika.

ateburu= atearen ganeko alderdia.



ZAHARRAK BARRI



Barriro be gure itsasertzeko soslaia aztergai. Agiriko dan lez, “portuko moilako” ha-txak doguz argazkietan, hau da, **Muxerratxe** eta **Barru-barru** deritxenak. Artergoko alean **Askadatik Gaztelugatxe**raginoko tokiak aitatu bagenduzan be, oraingo honetan baina, hartzako beste alderdikoak doguz ekarri.

Lurraren berezko soslaia ez da hainbeste aldatu, halan da be, gizakumeak ahamen be sartu dau eskua, beraren lorratza ondo itzita be. Eta ez itxura-itxurazkoa, nire ustez. **Birgilandako** etxetzar “erraldoi” horrek osooan apurtuten dau-eta ingurua, izadia. Zer esanik ez, argazki barrian ikusi geinkezan errekearen bestaldean eta **Kurutzekoa-txeren** aurrez aurre egoan **Birgilandapeko** haretzatuaren ganean eregi ebezan ibiltoki, moila eta etxe mandoari buruz. Aitautako gune txiki hareri “**Lekutxu**” esaten eutsoen Bakiotarrek. Hona etorten ziran gizaldi honen hasikerako Bakiotarrak, ze haretza nagusia, **Areaga** deritxona, udatiar etorri barrientzat baino ez zan izaten. Orain dana danontzako, baina lehengoa gurago.

Anartz ORMAZA

Berbalapikoa

soslai= profil, itxura.
aztergai= ikergai.
lorratz= arrasto.
erraldoi= handi-handi.
izadi= natura.
gizaldi= mende.

ZAHARRAK BARRI



abendua 2000

«Agure onari, ez aterik itxi.»

TX-33



SAN JOAN DOLOZAK 2000










ARGAZKITA
abendua 2000



Aurtongo herriko jaiak aste bitartean izan doguz. Ez dira, beharbada, horregaitik jendetsu-jendetsuak izan, ekitaldi gitxi batzuetan bestera izan bada be. Umeak jaietan parra-parra ibili izan arren, gazteak, barriz, askoz be gitxiago ibili dira, taberna edo txosna giroa gurago izaten dabe-eta, azkenengo urteotan ikusten danetik, behintzat. Eta halantxe izan da aurton be. Egunez egin izan diran ekitaldiak jendetsuagoak izan dira, batzaz beste, gauzez egin izan diranak baino. Halan bada, gazte gitxi ibili dira jaietan, eta horretan gehienak gauzez, baina. Jaietan zehar aro txarrik euki ez dogun ezkerro, batez be goizetan, haretzeak lagun asko eroaten izan dau berarenera. Jaiak eratuten dabilzanek horreek gauzaorrek kontuan euki beharko leukeez hurrengo urteko jaiak eratuten hasi orduko. Halandabe, jaiak beti jai jaietan ibili gura dauanarentzako. Horretan ibilitakoen artean ez dira gitxi izan ondo baino hobeto jaietan pasatu dabenak. Gora zuek!







ARGAZKITA
abendua 2000

TX-33

25

GORBEIA

(1.475 m.)

Badago Xiberoan **BORTÜKARI**AK izeneko mendi alkartea. Bortükariak mendi alkartea sortu zana bete dira aurten hogeitau. Hogeigarren urteurrena dala-eta, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako tontor nagusietara igotea pentsatu eben, arean da: Okabe (Nafarroa Beherea), Orhi (Xiberoa), Aizkorri (Gipuzkoa), Artzamendi (Lapurdi), Hiru Erregeen Mahaia (Nafarroa), Anboto (Bizkaia) eta Gorbeia (Araba).

Gorbeia igon eben, bada, aurtongo irailaren 10ean. Eurakaz batera gipuzkoar eta bizkaitar batzuk be joan gintzazan, guztira hogeitau bat lagun. Aurreko egunean, zapatuan, alkartu gintzazan danok Arratiako Areatzan. Handik Pagomakurrera joan eta bertako aterpetxean egin genduan lo. Hurrengo egunean, goizean goizetik, Gorbeiarantza urten genduan. Lekanda tontorraren beheko alderditik bidezidorrez bidezidor heldu gintzazan Arrabako landa ederrera. Ederto jagonda dago, ganera. Zer esanik ez, handik ikusten dan ingurua. Benetan ederra, gero! Arrabako landearen ondoko Gatzarrieta mendian hiru sai euki genduzan gure oinkadei begira. Bidezidorra estutuz joiala, Gatzarrieta mendia inguratu genduan



Gorbeia tontorrean

eta Egiriñaorantzako norabidea hartu genduan. Bertara heldu eta hango haretxaga abartsuan zaldi zein behiak nahia ikusi genduzan, gerizpean, abaroan egozala. Aldamiñospera egin baino lehenago, Egiriñaon dagoan Iturriotz edo Lekuotz iturrian kendu genduan egarria. Bai, ur gozoa! Oraindi-



Arratia Lekandapetik

nokarren ibilbidearen zatirik gogorrena geunkan geure aurrean, Dulao izeneko sakostatik gora lehenengo Aldamiñospera igon eta




Anboto Gorbeiatik

GAI BEREZIA

abendua 2000

TX-33

26



ARRATIA ARANA



Lekanda Arrabatik



Ullibarri-Ganboako urtegiak Gorbeiatik



Gorbeia Lekandapetik

handik Gorbeia ganera helduteko. Baina, azkenean, heldu gintzazan kurutzegino. Ordu bi eta erdi emon genduzan bertara arte. Gorbeia-ganean koputzua jan, beste mendi-goizale batzukaz berba egin, argazkiak atara eta beherantz barrian, Egiriñaogino. Bertan egin genduan otordua, lo apur bat, eta etxerantzako bidea hartu. Egun-emote ederra, benetan!

Bakion badago, egon be, mendi taldea bada. **JOAN-ETORRI** izenekoa. Oker ez bagagoz, 1978. urtean jaio zan. Urtero-urtero egiten dabe Bakioko mendien ibilaldia, San Migel eguneko arteragoko domekan, hatan be. Lehen urteroko ibilaldi hori ez eze, beste mendi urtekera batzuk be eratuten ebezan. Urteokaz, baina, eratuten izan dabezan ekintzak apalduz joan dira. Bakiotarren eskuetan dago mendi taldea barrian bizkortutea. Halan beite!

Iniaki MARTIARTU



Joan-etorria: 2000ko irailaren 23an. Bakioko mendietan 21. ibiltaldia




Aldamin Gorbeiaren bizkarretik

Berbalapikoa

arean da= hau da.
 aterpetxe= ostatu.
 bidezidor= basobide. (Bakioko berbea)
 sai= putre.
 oinkada= urrats, pauso.
 haretxaga= haretx asko daukan lekua.
 abartsu= orrritsu.
 nahia= zenbat gura. (Bakioko berbea)
 abaro= aterpe, gerizpe. (Bakioko berbea)
 sakosta= troka. (Bakioko berbea)
 koputxu= hamaiketako txikia. (Bakioko berbea)
 barrian= barriro. (Bakioko berbea)
 otordu= bazkalordu. (Bakioko berbea)



Egiriñaoko aterpetxea



San Migel^{eguna} 2000



Aurtengo San Migel eguna, gure eritxian, sano makalotu zan, jaiaren inguruko ekitaldien ikuspegitik begiratuta. Urterik urtera motelago. Txosnak eurak eta euron zaratea kenduta, ez zan egon bape gehiago Zumetzagan. Izan be, egun hori lagunen alkargune bihurtuda, han alkarregaz bazkaria egin eta jan, eta ez dago hori bape txartō. Baina zeozer gehiago behar da han. Zeozer eratu beharko leukee larrauritarrek egun hori zeozelan jantzi eta bizkortuteko. Osterantzean, txosnen inguruko kontsumokerian ibiliko gara beti, aurrera eta atzera, gure buaruak askatu ezinik. Polita, beste aldetik, Tabernaldeko erromeria. Lagun gitxi dantzan, baina. Tabernak, ostera, mukurugino beteta egon ziran, baita Moilapuntako tabernak be. Jaiak ondo pasetako baino, diru egiteko makinak dirala gehiago emoten dau. Hori da guk gura doguna? Baietz, emoten dau.





ALDEKOA

ALDEKOA gaubekatarrek euren baserriaren ondoan eregitako baserria da, hortik jatorko izena: *aldekoa*, *albokoa*, *ondokoa*. Gaubekatarrena izan zan. Izan be, 1709. urtean behintzat, Marina Gaubekakoarena zan, Joan Abaroa errentadore ebal.

Urte batzuk garrenean, Bentura Uriarte eta Unibasoko Anna Mariarena izan zan. Unibaso sendiak Gaubekakoagaz loturaren bat eukanez, ezkon-sariaren inguruan zeozer zala-eta, jaubez aldatu eben baserria.

Hiru seme-alaba euki ebezan, danak San Pelaion jaiok eta ez ALDEKOA. Nikolasek, semerik zaharrenak, hartu eban ALDEKOA oinordetzan eta Larrauriko neska bategaz ezkondu zan 1787. urtean. Gurasoakaz bizi ziran baserrian bertan, honeek hil artean. ALDEKOAko "hobian" lurperatu ebezan.

Bikotearen seme batek, Juan Bautistak, hartu eban baserria oinordetzan. Ha be Larrauriko neskatila bategaz ezkondu zan, 1819. uretan, Larraurin bertan. Alaba bi eukiteaz ganera, Juan Antonio, seme bakarra jaiok jaken 1822. urtean.

Azken honen eskuetan lotuko zan geroago ALDEKOA baserria. Juan Antonio 34 urtegaz ezkondu zan

1856. urtean beraren bigarren lehengusina bategaz, Maria Juana Uriarte Iturain izenekoagaz, hatan be.

Uriartetarrak Gaztelugatxeko Donieneren deboto bizi-biziak ziran. Euren seme-alabak jaiok ziran egunetan eurotan bateatu ebezan Gaztelugatxen. Halan egin eben, bada, 1863. urtean Frantzizko Uriarte Uriarte "Pantxo" semeagaz. Ez ekien izenpetzea idazten be, erderaz bape ez eben ulertuten. Pantxo eta beste bost seme-alaba euki ebezan hareek. Seme-alaba guztiotatik hiruk baino ez eben umezaroa igaro.

Pantxok 14 urtegaz egin eban alde Kubara, beste askok lez, Euskal Herrian gauzak ez ebilzan ondo eta. Danetariko mutil lez hasi eta hamabigarren urtean gudarostean amaitu. Kuban gauzak be txarragotu ziran, Bakiora etorri zan atzera. 1900. urtearen hasieran Bakion egoala, Bermeoko esbribauak ALDEKOA baserria emon eutsen beraren gurasoen izenean. Baserria ez eze, hainbat larra eta solo emon be, dana 12.500 pezetan baloratuta. Pantxok etxea barriztatu eban bertan biziten lotuteko asmoagaz.

Pantxo, Kuban egoala, Antonia Pia Arruzagaz, Quinta Torreko alabeagaz, eskuordez ezkondu zan Bakioko Basigoko Andra Mari eleizan, Pantxoren osaba bat eskuordekoa izan zala. Ezkondu eta lasterrera joan zan Antonia Kubara, Pantxoren arrebei lursail

batzuk itzita.

Handik atzera etorri be, etorri egin ziran. Pantxo, baina, harako joan-etorrian ibiltzen zan. Bakion bertan egozanean, Quinta Torren biziten lotuten ziran. Bertan jaiok ziran euren seme alabak.

Eta halan ibili ziran ALDEKOAko uriartetarrak, Kuba eta Bakioren arteko hara-honakoetan. Baserrian jaiok eta handiki lez munduan ibili. Lurra landu eta atzerrian behar egin eta izerdia emon dabenen emoitza garbia.



Anartz ORMAZA

Berbalapikoa

eregi= etxea egin, eraiki.
urte batzuk garrenean=
urte batzuen buruan.
sendi= familia.
lotura= zerikusi.
ezkon-sari= dote.
oinordetzan hartu=
gurasoetatik hartu.
hobi= hilobi, sepultura.
hatan be= hain zuzen be.
izenpetza= sinadura.
umezaro= ume aroa.
gudaroste= armada.
eskuordez= nonoren izenean eta ahalmenaz.



euskerearen jaia 2000




ARGAZKITA
abendua 2000

TX-33

30

Euskerearen jaia izan genduan joandako urriaren 28an. Gaiteroek egindako kalerik kalekoaren deia herrian zehar zabaldu eta gero, eguerdiko ordu batetan hasi ziran herriko pelotalekuan eguneko ekitaldiak. Eskolako umeen abesti eta dantzen ostean, ITXAS-ALDEkoen dantzei egin jaken lekua. Jarraian, Saralegi harri-jasotzaile leitzarraren erakustaldi ederra eta beraren herriko azkolari neska biren arteko lehia izan genduzan. Herri bazkari ezin gozoagoa atondu eta zerbitu euskuen herriko andrekin. Bazkalostean, Erick magoaren trikimailuak ikusi eta entzun ahal izan genduzan. Amaituteko, Tapia eta Leturiaren erromeria, honetan Patxi Perez Iparraldeko dantza maisuak ederto be ederto lagunduta. Euskerearen onerako izan daitela!



Alemaniako umeeek ordenagailua eroan behar dabe eskolara



Alemaniako Gobernuak bene-benetan hartu dau teknologia barriak zabaltzeko beharrizana. Halan, jakin eragin dau Alemaniako ume guztiek ordenagailu eroangarri bana euki beharko dabela 2006. urtea baino lehen. Interneten garrantziaz jaubetuta, Schroeder-en gobernuak guztiz informatizatu gura dau Alemaniako eskola publikoa. Edelgard Bulmann Hezkuntza ministroak esan dauan lez, datorren urtea amaitu baino lehen ikastetxe publiko guztiek eukiko dabe Interneten sartzeko erea eta sei urte barru ume guztiek ordenagailua eroan beharko dabe eskolara. Teknologia barrien aldeko postura ez da merkea izango, ez horixe, zazpi bilioi pezeta kostako da eta.

Drogak inoiz baino adulteratuago


Legez kanpoko drogak, gaur egun, inoz baino adulteratuago dagozala salatu dau Kalamudia taldeak. Orain arte haxixa nahiko garbi heltzen zan Euskal Herrira, baina azken aldian ia ezinezkoa da kalitatezko haxixa topatzea. Kalamudiak dinoan lez, Marokon bertan erositakoa be adulteratuta dago, autoko orioa emoten dauan substantzia bategaz nahastu dabe eta. Kokainarik gehiena botikakaz

nahastuta dago eta *speeda* glukosagaz. Antza danez, marihuana da oraindino nahiko garbi kontsumitu leiteken legez kanpoko droga bakarra.

Iparburua (Poloa) urtzen dabil


Aspalditik uste zana baietzatu dau NASAk: Iparburua urtzen dabil. Izotz plakea gero eta meheagoa da eta, ondorioz, oso errez hausten da. Toki batzuetan 2.000 kilometrokoak dira arrakalak. Izotz plakea 50 metrokoa zan orain dala urte batzuk, baina gaur egun oztan-oztan hiru metrokoa da iparburuko alderdi askotan. Jakitunek uste dabe klima aldaketeak eragin dauala iparburuaren urtzea: Lurra gero eta beroago dago eta neurriak hartzen ez badira, etorkizunean handiagotuko da arazoa.

Erretzeari izteko botikea, laster merkatuan



Urritik aurrera salgai izango da *Bupropion*, erretzeari izten laguntzen dauan botikea. Antidepressiboen familiakoa da eta, nikotinareen terapiagaz batera, Osasunerako Mundu Erakundeak erretzeari izteko onartu dauan tratamendu farmakologiko bakarra. OMERen datuen arabera, beste herrialde batzuetan lau erretzaiterarik batek lortu dau tabakoa iztea *Bupropion* botikeari esker. Kontuan hartu behar da, dana dala, erretzeari izteko garrantzitsuena motibazinoa dana.

HIESa Europan, 1994-1998



The Lancet aldizkarian argitaratutako ikerketeak HIESak Europan behera egin dauala adierazo dau. 1994. eta 1998. urteen bitartean kasu gitxiago diagnostikatu ziran, eta, aldi beratan, tratatutako gaixo kopurua handitu egin zan. Ikerketea Europako 17 herrialdetan egin da eta tratamendu konbinatuen eraginaren ganeko ikuspegia emoten dau. Eموitzek lehenago egindako ikerketenak baieztatu dabez, hau da, HIESa Europan urritu egin da. Ganera, urritzea erretrobirusaren aurkako tratamendu gogorrek hasteagaz batera izan da. Ikerketako emoitza, bada, botika barrien eraginkortasuna egiaztatu daben saiakuntza medikoakaz bat datoz.

Minbiziaren aurkako edabea

Zortzi landaraz egindako infusinoa leuzemiaren eta prostatakako zein bularretako minbizi edo bizienaren aurka eraginkorra dana erakutsi barri dau Estatu Batuetan New Jersey-ko New Brunswick-en Robert Di Paola irakaslearen taldeak. Berez, bizienaren aurka eraginkorra izan, zortzi landarotariko bat (erregaliza) baino ez da.

Erregaliz landararik A likokalkona izeneko substantzia atara eta prostata, bular edo odoleko minbizi euker gaixoen tumoreetako zelulakaz *in vitro* egin dira probak. Eموitza garbia izan da: tumore zelula guztiak hondatu dira. Orain animaliakaz probatzeari ekin deustoe.

Zortzi landarako nahastea daukan edabea Estatu Batuetan PC-SPES izenaz saltzen da elikagai osagarri lez. Hasikerako PC horrek "prostatic cancer" esan gura dau, eta ondoko SPES horrek itxaropena. Honeek dira, erregalizaz ganera, edabeak daukazan landarak: krisantemoa, palmondo mota bat, eskutelaria, eta *Isatik tinctoria*, *Ganoderma lucidum*, *Panax pseudo-ginseng* eta *Rabdosia rubescens* deritxenak.

Coca-Colea, Txinako ekonomiaren zutabeetariko bat

Coca-Colea galazota egon zan Txinan 1979. urtera arte, baina gaur egun herrialde komunistako ekonomiaren euskarri bihurtu da. Estatu Batuetako konpainiak 30 lantoki daukaz Txinan eta horreetan 14.000 lagunek egiten dabe behar. Dana dala, askoz gehiago dira Coca-Coleari lotutako beste lantoki batzuetan diharduen beharginak: guztira 414.000 dabilz beharrean Estatu Batuetako multinazionalarentzat. Coca-Coleak urtean 36.600 milioi pezeta (1.444 milioi libera) ordaintzen deustoz Txinari zergetan.

Miarritzek beraren lurrina badauka



Christien Louis usain sortzaileak *Miarritzeko ura* izena emon deustoz lurrin barri bateri. Christien Louisek usain goxoen dendea dauka Bastidan (Nafarroa Beherea) eta asko ez dala, *Miarritzeko ura* imini dau salgai. Usain sortzaileak esan dauan lez, gure senideen sasoiko usain bat topetan ahalegindu da, "apur bat erromantikoa, gomutapenez beta". Orain bezeroek erabagi beharko dabe emoitzea gustetan jaken ala ez.

Sakelako telefonoak ez dira osasungarriak



Sakelako telefonoek gehiagotu egiten dabe garuneko minbizi izateko arriskua. Halan jakin eragin dau Suediako Karolinska Institutuak, gaixo hori euker 209 lagun aztertu eta gero. Karolinska Institutuak ikertzen jarraituko dau: beste 1.500 gaixo aztertu eta urtebete barru azalduko dauz ondorioak. Edozelan be, Lennart Hardell doktoreak esan dau sakelako telefonoak ahalik eta gitxien erabili behar dirala, mikrouhinak ez diralako bape osasungarriak.

BARRI LABURRAK

BARRI LABURRAK

abendua 2000

TX-33

33


ITXAS-ALDE BULGARIAN




Batzuk sinistu ezinik, batez be gaztetxuenak, heldu gintzazan joan dan agorrilaren 5ean Bulgariako Varna uri handira, 11ra arte bertan egoteko amesagaz, eta bai egon be.

Oraingo bidaia honetan atzerrira lehenengoz urten dauan Itxas-Aldeko dantzari gazte piloak joan da, eta esan behar dogu taldeak ondo be ondo erantzun ebala eta ez dala askorik igarri gure taldearen barrizatze hori. Dantza erakusketa handia izan zan hangoa, hogeitaka herrialdetako dantza taldeek parte hartu eben eta. Esate baterako, Egipto, Ukraina, Georgia, Turkia, Hungaria, Errusia, Mexiko, Frantzia, eta beste talde mardo bat. Halan da ze, leku askotako jendeak ikusi ahal izan eban euskal folklorea, hori gure helburuetariko bat izanda. Bidaia honetako datu batzuk atarateko era ona dozue alboko argazkietan.

Unai BEITIA





BAKIOKO EUSKEREA -XI

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Ahor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

■ zelan idatzi behar dan: «zeinetagiño?»

■ Bakion zelan esaten dan: «(seiñetagiño?)»


- GINO

Goiko atzizkia -RAINO horren bardinantzekoa da. Bizkaierearen lurraldean -(RA)GINO⁽¹⁾ atzizkia zabal eta eurrez erabili izan dabe lehenago herriak zein idazleek. Gure herriko zaharrenek gorde egin dabe oraindikarren -GINO lekuzko atzizki zahar hori. Eurak baino gazteagoen agoetan, ostera, erderearen eraginez, -ARTE atzizkia entzuten da sarritan haren orde, oker erabilita. Izan be, azken hau denporazko atzizkia da eta ez lekuzkoa. Bakioko zaharrek ondo be ondo dakie noz bietarik zein erabili. Ikasi daitsegula, bada! Atzizkion kasua deklinabideko ADLATIBO AMAITUZKOA deritxona da, bizibakoena, hatan be.

Esate baterako:

Eleizatik etxeGINO ibili naz goizean. (lekuzkoa)

Zazpirak ARTE ibili naz goizean. (denporazkoa)



NOGINO? (NOGIÑO?)

Mugatubakoa

eleizaTAGINO
(eleisatagiño)

etxeTAGINO
(etxetagiño)

mendiTAGINO
(menditagiño)

soloTAGINO
(solotagiño)

lekuTAGINO
(lekutagiño)

izarrETAGINO
(isarretagiño)

Mugatu SN.

eleizaGINO
(eleisagiño)

etxeGINO
(etxegiño)

mendiGINO
(mendigiño)

soloGINO
(sologgiño)

lekuGINO
(lekuigiño)

izarrEGINO
(isarreggiño)

Mugatu PL.

eleizETAGINO
(eleisetagiño)

etxeETAGINO
(etxietagiño)

mendiETAGINO
(mendixetagiño)

soloETAGINO
(soloetagiño)

lekuETAGINO
(lekuetagiño)

izarrETAGINO
(isarretagiño)

Mugatu hurkoa - PL.

eleizOTAGINO
(eleisotagiño)

etxeOTAGINO
(etxiotagiño)

mendiOTAGINO
(mendixotagiño)

soloOTAGINO
(solootagiño)

lekuOTAGINO
(lekuotagiño)

izarrOTAGINO
(isarrotagiño)



Tokien izenak MUGATUAN deklinetan dira, berbarako:
 Algorta**GINO** (*Algortagiño*) - Mungia**GINO** (*Mungidxegiño*) -
 Alardone**GINO** (*Alardonegiño*) - Basauri**GINO** (*Basaurigiño*) -
 Bakio**GINO** (*Bakidxogiño*) - Ermu**GINO** (*Ermugiño*) -
 Brasil**EGINO** (*Brasillegiño*) - Noain**EGINO** (*Noaiñegiño*) -
 Lemoiz**EGINO** (*Lemoisegiño*)...

Beste batzuk:


hona**GINO** (*onagiño*) - honaxe**GINO** (*onaxegiño*) -
 horra**GINO** (*orragiño*) - horrax**GINO** (*orraxegiño*) -
 hara**GINO** (*aragiño*) - haraxe**GINO** (*araxegiño*) -
 berto**GINO** (*bertogiño*) - berta**GINO** (*bertagiño*) -
 hone**TAGINO** (*onétagiño*) - hone**ETAGINO** (*ónetagiño*) -
 horre**TAGINO** (*orrétagiño*) - horre**ETAGINO** (*órretagiño*) -
 hare**TAGINO** (*arétagiño*) - hare**ETAGINO** (*áretagiño*)...

edo

no**GINO**? (*nogiño?*) - zein**ETAGINO**? (*seiñetagiño?*) -
 zerta**GINO**? (*setagiño?*) - zeintzu**ETAGINO**? (*seintzuetagiño?*) -
 nono**GINO** (*nonogiño*) - bat**EGINO** (*bategiño*) -
 batzu**ETAGINO** - (*batzuetagiño*) - beste**GINO** (*bestegiño*) -
 bi**GINO** (*bigiño*)...

(1) **-RAGINO** atzizkiaren eria (e.b.: eleiza**RAGINO**) erabili izan da gehien Bizkaian, aurreko **-RA-** bako atzizkia baino. Gure eritxian, atzizki hori halantxe da osoagoa. Bakion be nozonoz entzuten da **-RAGINO** atzizki osoagoa, **-RA-** bako atzizkia, hau da, **-GINO** nagusi bada be.

Iniaki MARTIARTU



AMAK "ZATOZ"

Amak "zatoz", esan eustan,
 eta ni, etorri.

Aldiak "zoaz", agindu,
 eta ni abiatu.

Harrezkero bidera,
 ta, harrezkero bidean.

Jadanik sarkaldea
 gorri ta baltz dago.

Gaba-egin nahi neuke.
 Noiz ete dot entzungo

-noizbait hatsartzeko-
 noiz hurrengo txistada.

Gaba-egin nahi neuke-
 zure deia, Jainko?

Bitoriano GANDIAGA

GAUEKA HERRI KIROL TALDEA

Gure TXIRRITXOLAREN ale honetako taldeen txokora "Gaueka" herri kirol taldea datorku oraingoan. Ordezkarri lez, danok ezagutzen dogun Felix Azkaiturrieta "Bolibar" egaz egon gara berbetan. Hor daukazue berbaldi haren emoitzea.

TX: Hasteko, nondik dator "Gaueka" izen hori?

FA: Ba, Jesus Olazar eta biok bultzatu genduan proben inguruko talde hau eta izen bat imini behar jakola-eta, herrikoa imitearren, imini geuntson izen hori. Gaueka baserriko semea zan "Perejille" antxina probalaria izan zan. Hori dala eta, ba, beste batzuk be egon ziran baina, hori aukeratu genduan.

TX: Zenbat urte emon dozuez?

FA: Hogei urte pasauta. Gitxi gorabehera, horreek izango dira probarría apurtu zanetik eta hona pasau diranak. Jesus Olazar, Sabin Muruaga eta hirurok ibili ginan orduan. Hurrengo urtean, bertan behera itziteko izan ginan, baina Udalak lagundu euskun apur bat eta orduan hasi ginan Jesus eta biok bakarrik.

TX: Nor ibiltan zan antolatuten lehenago?

FA: Sabin ibiltan zan. Hamabost urte inguruan ibili zan.

TX: Azaldu eiskuzu zein dan zeuon beharra.

FA: Lehenago, behar gehiago egoten zan, ze etxerik etxe joaten ginan idien bila probetan apuntetako. Gero, probaleku zaharra estaldu, garbitu eta bertan mekanotuboa imini behar izaten zan eta hori be behar handia izaten zan. Gaur egun, probaleku barria badaukagu eta zozketarako deia egiten dogu gura daben probalariak etorri daitezana. Orain, probak eurok antolatu baino ez doguz egiten.

TX: Herri kirolak beherantza doaz, ezta? Uste dozu zuk probak be atzeraka doazala?

FA: Oraintxe urte bi edo hirutik honantza goraka egin dau apur bat. Ze orduan hasi ziran "doping"aren aurkako kontrolak egiten eta epaileak be zorrotzago izaten karreteruakaz. Orain ezin lei idia lehenago beste kiñau. Orain datozen probalariak profesionalagoak dirala esateko moduan gagoz, ze lehenago idi buztarri txar asko ibiltan ziran probetan, eta ganora barik. Horregaitik ba, badinot, seriotasun eta profesionaltasunean irabazi egin dauala herri kirol honek.

TX: Joaten da jende modurik probak ikusten?

FA: Askorik ez. Orain zazpi urtera arte dirua galtzen ibili gara, baina orain publizitateagaz diru apur bat be batzen dogu eta gero Udalak eta Foru Aldundiak be laguntza handia emoten deuskue.

TX: Jokolarientzako mundua izan dira beti probak. Jokatuten da dirutzarik oraindinokarren?

FA: Oraindino be, badagoz puntu gogorrak. Lehen baserriko dirua hartu eta probetara joaten ziran asko jokatuten, baina gaur ez. Orain danetariko jendea da jokatuena dauana. Baina herri inguru batzuetan beste batzuetan baino askoz gehiago jokatuena da. Bakion ez dago holazeko afizinerik jokora. Mungialdean, barriz, bai, esate baterako.

TX: Zeure eritxiz, zer egin behar leiteke probei



aurrerantzean be eusteko,?

FA: Seriotasuna da garrantzitsuena. Probalekuak garbi, "doping"aren aurkako kontrolak eta idi buztarri onak plazaratu. Lehenago hogeita hamabost buztarri be apuntatzen ziran eta askok akulu guztiak apurtu, untze gitxi egin eta ikuskizun pobrea eskaintzen eben. Orain ia holangorik ez dago.

TX: Desagertuko dira zeuokaz Bakioko idi probak? Etorrizuna, zelan ikusten dozu?

FA: Ez. Ez dago gazte asko baina oraintxe hiru-lau badabilz laguntzen. Arazoa, Udalak eta Foru Aldundiak laguntzinoa emoteari itziten badeutsoe, orduan etorri leiteke. Baina, hori bai, gustatuko litzakigu gazte talde bat sartzea, geuk be apurka-apurka eurei ardurea itziten joateko, ze urte askotan kantsau be egiten da norbera.

TX: Ederto ba, Felix, hau izan da dana. Eskerrik asko eta hurrengora arte.

Unai BEITIA

B A K I O K O A B E S B A T Z A

Abenduaren 6tik 10era Parisera osterea egiteko ziran abesbatzakoak. Bertan, egun baten Versailles-en eta hurrengoan Pariseko Euskal Etxean abestuteko ziran. Baina, azkenengo arazoak dirala-eta, datorren urtera arte atzeratu behar izan dabe. Artean, zemendian, Santa Zezili musikarien eguna ospatu dabe, afari eta guzti. Gabonetarako gabon abestiak prestatuko dabez, urtero lez, herrian abestuteko. Datorren urteko Musika Astean lehenengoz abestuko deuskuen Bakioko Ereserkia be prestetan dabilz. Abotsen kalitatea hobaituteko Garbiñe Abendañok lagunduten deutse abestuteko teknikak ikasten eta abar. Badakizu, inork eurakaz abestuten hasi gura badau, ate guztiak zabal-zabalik daukazuzana.

BKTren ganeko albisteak

BKTK beste denboraldi bat hasi dau, taldearen 12. denboraldi ofiziala. Lehenengoa 1989-90ekoa izan zan. Joandako denboraldian zehar gauza asko bizi izan dira. Oraingoa berezia izango da, Bermeoko klubagaz egindako ituna dala eta. Honen arabera, Bermeokoan jubenil mailan amaituko daben gazteak hartzeko aukerea eukiko dau Bakiokoak eta bardin Bermeokoak. Bakiotarrentzako beharrezkoa zan holango zeozer egitea, ze urtero arazo handiak egoten izan dira taldea osotzeko. Gogoratu bertan Bakion egindako jokalariek zortzi edo bederatz bano ez dirana izan eta atzetik ez datorrena inor, lehenengotik barrero hasteko Bakion umerik ez dagoalako. Hau holan dala, aurten oso talde konpetitiboa lortu ei dabe eta aurrerantzean be halan izan leiteke, bermeotarrakazko hartuemonak okertu ezean.

ITXAS-ALDE-ren albisteak

Zemendiaren 18an Busturialdeko dantzari nagusien jaietan hartu eban esku taldeak. Jai ha Gautegez-Arteagan egin zan. Bertan, bakiotarrok Lesakako dantzak eta Batelera izeneko dantzea, besteak beste, egin ebezan. Beste alderdi batetik, hurrengo urterako dantza barriak jo ta ke prestetan dabilz. Eta zer esanik ez, osteratxu bat egingo dabe Aste Santuan. Eta nora? Bada, Eskoziako Aberdeen-era, bertan gure dantzak erakusteko asmoz.

BSTren barriak



Irailaren 23an eta 24an Euskal Herri osoko surfilaririk onenak izan genduzan gure herrian. Iparralde-Hegoalde surf norgehiagokea jokatueteo etorriak, hatan be. Ehundik gora surfilarik hartu eban esku, neskek zein mutilek. Aro ederra izan genduan. Itsasoa, barriz, bare-bare, ia olaturik ez zan egon eta. Txapelketan sei maila egozan: Open, Sub 16, neskena, Open Body, Longboard eta Body Sub 16. Mailarik garrantzitsuenaren (Open dalakoa) irabazlea Algortako Kona Acero izan genduan. Norgehiagoka horrek Euskal Herri osoko surfilarien arteko hartuemonak estutueteo balio eban. Horrezaz gan, Euskal Selektzioen aldeko kale aldarrikatzea egin eban. Bestetik, zapatuan, Bakioko Udalak Euskal Herriko Surf Federazioari omenaldia egin eutson.



Gabonetako Kultura egitaraua

Zemendiaren 30etik abenduaren 15era: Erramun Landaren erakusketea Kultur Etxean.

Abenduaren 1ean: "Magic Lehiaketea" Kultur Etxean.

Abenduaren 22an: Antzezlanak Kultur Etxean, "Izarretako Bitakora" Maskarada taldearen eskutik. Arrastiko 8:00etan.

Abenduaren 23, 27 eta 30ean: "Bertoko Surfaren Historia" Kultur Etxean, arrastiko 6.00etan, Bakioko Surf Taldeak eratuta.

Abenduaren 24an: Olentzero. Amaieran, Ipuin Lehiaketako sariak pelotalekuan.

Abenduaren 26, 27 eta 28an: 7 urterik 10 urtera bitarteko umeentzako Marrakzi Ikastaroa Kultur Etxean, arrastietan 5.00etatik 7.00etara. 500 pezetan dago ikastaroa. Izena bertan emon.

Abenduaren 30ean: TELMAH taldearen eskutik txikienezako emonaldia, eguerdiko 12etan, probalekuan. Sartzea doharik.

Urtarrilaren 3 eta 4an: 5 urterik 7 urtera bitarteko umeentzako "Olgetan tailerrak". Kultur Etxean, arrastietan 5.00etatik 7.30etara. 500 pezetan dago. Izena bertan emon.

Urtarrilaren 5ean: "Saguzarrak" diapo-emonaldia Kultur Etxean, arrastiko 7.00etan. Ibon Canciok eratuta.

Urtarrilaren 13 eta 14an: Formigalen eskietako joan-etorria. 14.000 pezetan dago. Turismo Bulegoan informazino gehiago.

Liburutegian: Dinosaurioen ingutuko gaiak egongo dira.

HERRIKO TALDEEN TXOKOA

abendua 2000

badaezpadako jakingarriak

	telefono zkia.	fax zkia.
Udaletxea	94 618 40 01	94 618 31 18
Turismo Bulegoa	94 619 33 95 / 5702	94 619 31 61
Kultur Etxea	94 619 33 69	94 619 31 18
Osakidetza (osagilea)	94 619 42 07 / 4026	
Udaltzaingoa	656 788 623	94 619 31 18
Larrialdietarako zerbitzuak (SOS Deiak)	112	
Taxia	609 443 933	
Abadea (beheko eleizea)	94 619 43 15	
Botikea	94 619 44 72	
Autobusa (Bizkaibus)	94 454 11 35/05 44	
Suamatatzaileak	94 492 28 00	

TX-33

39

MUSIKEAREN TXOKOA

Agur beroa musikearen txokotik!

Barikuz izan zan kontzertua, eta antolatutako kontzerturako autobusik Bakiotik egon ez zanez, bakarrik Arnaldo Larrazabal eta biok joan ginan hara.

Musikaldia "SPLIT 77" taldeak hasi eban. Bai, Bakioko jaietan jo eban. Egia esan, euren ez etorren bat karteiko izenburuaren erroiloagaz, euren musika "Smashing Pumpkins" diralakoan ildokoa izan zan-eta. Batzuetan, guk horrerik larregizko imitazioa eritxi arren be. Osterantzean, doinua eta abestiak kalitatezkoak zirana ez dago ukatzerik, Bilboko "label" agaz, jakina.

Ostean, musikaldiaren izarrak agertokiratu ziran, "Hardcore Superstar" taldeko suediarrik. Kontzertua, orokorrean, txukuna izan zan. Euren "look" a Los Angeles-eko larogeiko hamarkadako "hard rocker" en antzekoa izan zan (Guns 'n Roses, Monthley crüe, Faster Pussycat...), guztiz tatueta, begiak marraztuta, naruzko frakak jantzita, etab. Abeslariak AXL Rosen (Guns 'n Roses) keinu eta abots berbera eukazan, kitarra joleak itzelezko punk anterea eukan, eta bateriari joleak farlopaz goraino beteta egoanaren antza emon euskun.

Errepertorioari jagokonez, "It's only rock 'n roll" eta "Bad sheakers and a piña colada" diskoen abesti zein "Monthley crüe" ren bertsino pare batez osotu eban. Baina eurek hard rocka aldarrikatu arren, nahiko "punk rocker" begitandu jakuzan.

Beharbada, abeslariaren "parrafada" batzuk lar egon ziran, baina euren abesti txorta ederrakaitik parkatu egin geunskien. Hori bai, bakiotar gitxi ikusi genduzan lokalean. Halan bada, anima zaitze apur bat hurrengorako. Ez dozue gogokoago zapatuetako bueltea edota domeketako ostea izango, ezta? Ala bai?

Etor Duoandikoetxea

KULTURA LEIHOA
abendua 2000

TX-33

40

FILMA

AÑO MARIANO

Zinemara eroan aurretik, sarri eta luze egin zan berba *Año Mariano* pelikulearen ganean. Karlos Argiñano, Karra Elejalde eta Maria..., ez da besterik behar egunkari, telebista eta irratiarian agertuteko. Holan ikusita, pelikulea mamintsua izan leitekela pentsatu leiteke. Gaia, gitxienez, interesgarria da. Istorioa be ez da txarra, baina pelikulan azaltzerakoan, ez dot uste asmatu dabenik, saltoa egiterakoan barreak nagusitu egin dira osterantzekoaren ganetik. Makina bat gai dagoz eta barregarriak dira. Baina istorioa horretan lotuten da, eszenetan. Haria ez dago oso ondo garatuta, beharbada, eszenak istorioa baino leba handiagoko egin dabezalako. Halan bada, pelikulea eskasa da, barre asko egin arren.

Iratze ORMAZA

BARREGAIK

TELEFONOZ

- Zu, mesedez, zoroetxeagaz berbetan nago?
- Oker zagoz, memelo hori. Guk ez daukagu telefonorik eta.

ALPERRA

- Ikusten dodanez, alper handia zara.
- Hartuten dodan soldata txatxarragaitik...
- Egizu berba nagusiagaz, eta argitu eizu beragaz arazo hori.
- Egiten dodan behar txatxarragaitik...

JATETXEAN

Zerbitzariak bezeroari dinotso:

- Zertan zabilz hor makurtuta?
- Jausi jatan ogerlekoaren bila.
- Itzi eizu, gizona. Ogerleko bat gora-behera, ez doa inora.
- Horregaitik nabil haren bila, ba.

ARRAINA ZARA?


Neskato batek beraren ahiztearen ezkongaiari:

- Zu, arraina zara?
- Ez, zergaitik dinostazu hori?
- Hara. Amak gure ahizteari hauxe esaten deutso: "hor dator amuan harrapatu dozun mutila."

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA

Aurtengo irakurketa lehiaketea arrakastatsua izan da. Betiko lez, irakurlerik txikienek euren marrazkiak itzi dabez liburutegia apaintzeko. Lehengo urteakaz konparatu ezker, aurtan mutil gehiago egon da eskuhartzaileen artean. Zergaitik izan ete da? Sariagaitik, beharbada? Skate egiteko Sta Cruz Tabla ederra. Hona hemen aurtengo irabazlea: Igor Zuriarrain Mendiguren.

Liburuak dirala-eta, bertsolari bi ekarri doguz txokora:



PAUSOA NOIZ LUZATU:

Andoni EGAÑA.

1930eko abenduan Errepublikaren aldeko matxinadan esku hartu eban frai Kandidok. 1960an Zarauzko Lanbide Eskolako sortzaile eta


zuzendaria da. Francok Eskoleari sari bat emongo deutso, frai Kandidok be diktadorearentzako opari susmagarri bat badauka.

BERANDU DA GELDITZEKO:

Unai ITURRIAGA.

Bilboko alde zaharrean bizi dan gazte baten bizitzearen zati bat kontatzen dau Iturriagak. Mikelek, gure protagonistak,

kazetaritza ikasi dau baina ez da «Beraren Nagusiaren Abotsa» izango, musika talde baten baxujolea da, lagun baten etxean bizi da, ezer ordaindu barik...



KONPOSTELARA BIDEAK EUSKAL HERRIAN BARRENA:

Jose Luis ORELLA.



Ibilbidearen zehaztasunak ezagutuko doguz. Testuaz ganera, mapa eta irudi lagungarri eta interesgarri batzuk be aurkitu geinkez.

Liburu honeek Kultur Etxeko liburutegian irakurgai daukazuz. Erdur gural!

SALSA OTSO

(alegia)

Bela jauna, hizlari ospetsua, berbaldi bat emoten dabil telebisinotik.

- "...bai, ikusle maiteok, mundu hobea bat egin behar dogu, hobea bat. Eta..."

- "Hobeagoa oraindino...?", erantzuten deutso bildots hil bat jaten dagoan Sai jaunak, ABEREIL enpresako buru dan Sai jaun aberatsak.

Bere atzapar sendoz bildots hilari eutsi, ta moko kakodunez haren gorpua urratu ta zatitu, ta jan ta jan dihardu Sai jaunak, Bikain jantokian.

Halakoren baten, Otso jauna datorko ondora, aspalditik adiskide dauan Otso jauna.

- "Egunon!"

- "Jainkoak emon!"

- "On egin!"

- "Eskerrik asko."

- "Ondo, ez?"

- "Bai, oso ondo Jainkoari eskerrak."

- "Baina zer...?"

- "Zer..., zer?", bildotsaren bihotz usteldua iruntsiz.

- "Zuk ez daukazu lotsarik ez errespetorik."

- "Zer, ba?", mokoko zikina garbituz.

- "Hilen gorpuak jan?"

- "Ta zer?"

- "Nik neuk, behintzat, ez neuke horrelakorik egingo. Ezer-gaitik be ez. Ez horixe, Jainkoarren!"

- "Ez, zuk ez, jakina. Zuk bizirik jaten dozuz eta..."

Mikel ZARATE

SAN PEDRO ETA ERLEA

(herri ipuina)

Jesusek, ikasleak lagun ebazala, itsasbazterrean zehar joan baten, txalupa bat galdu-gordean ikusi eban. Orduan, San Pedro, halan esan ei eutson:

- Jauna, hara han gizonak baragarri itsasoan. Bategaitik guztiak galdu behar dabe.

Hurrengo haizeteak jo, txalupea iruli eta barrukoak ito egin ziran. San Pedrok hori ikusita, hortiko eta hemetikoak esaten marmar ekion.

Gerotxuago, erlakumea enbor batetik dingilizka ikusita, Jesusek esan eutson:

- Pedro, gorde eik hori kolkotan.

Eta Pedrok, gorde egin.

Bajoiarian, bajoiarian, eta erle batek eztena sartu eutson Pedrori. Pedro, estu ta larri, hasi zan jo bat eta jo bestea.

- Zer dok, Pedro, ba?, itaundu eutson Jesusek.

- Ba, Jauna, eztenka hasi jat bat eta...

- Lehen, bategaitik besteak ito diralako, marmarrean hasi haz. Eta orain hik, erle batek eztena sartu deusulako, guztiak hil gura dozak?

Holan bazan, ez bazan, sartu daitela kalabazan.

Eta urten daijala

Artatxuko basoan.

Iniaki MARTIARTU

Berbalapikoa

galdu-gordean=
galduteko aginean.

haizete= haize bolada.

marmar egin= azpitik esaka ibili.

erlakume= erle talde.

eik= eizu (hitanoa).

ezten= ziri.

dok= dozu (hitanoa).

haz= zara (hitanoa).



dozak= dozuz (hitanoa).

Ezetz jakin!




7 ezbardintasun


imitatzaileak




Josek gauza guztietan imitetan dau Xabier.
Xabierrek erre eginkeran bakarrik imitetan dau Anton.
Xabier eta Felix bata bestearen ondoan dagoz.
Zelan dauka izena bakotzak?



Hartu eizuez kontuan honako argibide honeek, eta kurutzegramea egin eizue: hiru hizki daukezan izenak, zenbaki-izenak dira, lau daukezanak margo-izenak dira, eta bost daukezanak, abere-izenak.





BOLIBAR

Jatetxea

Benta Alde, 180
Tfnoak.: 94 619 4141
94 619 30 00
48130 BAKIO



EROSLE


Etorkizuna!

Bakio bidea, 50
Tfnoa.: 94 619 49 00
48130 BAKIO

ASKADA

KAFETEGIA

Benta Alde, 70
Tfnoa.: 94 619 4006
48130 BAKIO



ARIMUNE

OSTATUA

Benta Alde, 95
Tfnoa.: 94 619 4022
48130 BAKIO



GAZTELU-BEGI

JATETXEA - OSTATUA

MAKAILOA - ATUNA - ITSASKIAK

San Pelaio Alde, 86
Tfnoa.: 94 619 4924
48130 BAKIO



atzera b egira

Ahor, eskolako neskato mardoa! Dan-danak, argazkian ondo urteteko, ederto baten jantzita eta orraztuta. Ene! Danak neskatoak, esan dogu? Kia! Ahortxe be morrosko bat, neska guztien artean bedeinkatua. Antza, mutilen argazkian zer edo hagaitik ezin urten eta neskatoen argazkian urten behar. Zorionekoa zu zeu, gero! Argazkia 1944 edo 1945. urtekoa izan leiteke. Bentako eskolako ikasleak ziran eta euron maisua On Jose Bermeo, Bilbokoa, izan ei zan.

Goitik behera eta ezkerretatik eskoira hasita honeexek doguz:

- 1. errenkadan:** Manolita LISTE (BENTA) – Maria ERKOREKA (SANJOANALDE) – Begoña BILBAO (TXOBERNE) – Juanita IMATZ (GIXISTI) – Maria GARAI (LUZARRAGA) – Nati BILBAO (LORREA) – Maria Kristina LONGARAI (BENTA) – Rosita GARAI (LUZARRAGA) – Marziana LONGARAI (BENTA).
- 2. errenkadan:** Ana IMATZ (GIXISTI) – Jesusa ZABALA (SAKRISTAU-ETXEA) – Maria GARZIA (BESONDOA) – Santa OROZKO (AMUE-ETXEBARRI) – Teresa OROZKO (AMUE-ETXEBARRI) – Maria OLAZAR (BENGURIA) – Maria DIEGO (ALTZAGA) – Maria Victoria BARTUREN (ARIE-ETXEA) – Pepita LONGARAI (BENTA) – Josefina BENGURIA (ORBIETA) – Jose Mari URIARTE (TELLERIA) – Modesta BARRENETXEA (ERMUA).
- 3. errenkadan:** Juanita JAUREGIZAR (INDARRENE) – Amaia LISTE (BENTA) – Felisa GARAI (LUZARRAGA) – Miren ABIO (MINTUA) – Itziar ELORRIAGA (BENTA) – Begoña GARAI (BENTA) – Miren BILBAO (TXOBERNE) – Josefina BARTUREN (ARIE-ETXEA) – Justina IMATZ (GIXISTI).

(Argazkia: Maria Victoria BARTURENek itzita)